

BEZEROEN SEGMENTUA

Gure produktuak hainbat bezero nagusi izango ditu. Hurrengo lerrotan ikusiko ditugu zehatzago:

- **Herritarrak:**

Energia berriztagarria eta jasagarria nahi duten herritarrak, teknologia berriak erabiltzeko prest daudenak. Gure produktua adin guztientzat eskuragarria izango da.

- **Enpresak:**

Gure produktua erosiz gero, energia berriztagarria bultzatzeaz gain, autokontsumorako energia izango dute enpresek.

- **Administrazio publikoa:**

Energia garbiaren erabilera sustatu nahi duten zerbitzuei, udaletxeak erosi dezakete beren herrian erabiltzeko edota edozein zerbitzu publiko bere instalazioetan erabiltzeko.

Gure segmentu nagusia energia jasagarriaren merkatuan kokatzen da, tokiko eta kontzientzia ekologikoa duten kontsumitzaileen segmentuan zehazki.

Gure produktua **euria egiten duen lekuetan** salduko dugu; **klima ozeaniko hezea** nagusi den lekuetan non, prezipitazio ugariak, tenperatura moderatuak eta eguzki-ordu ertainak dauden. Momentuz gure inguruan instalatuko dugu, gero Euskal Herri mailan eta gure helburua enpresa handitzea denez, Iberiar penintsulara zabalduko gara.